

Tokiko Agenda 21eko Foroaren akta

Gaia: "Solosaldia Legazpiko Agenda 21aren inguruan"



2015eko martxoaren 26an, 18:30etik 20:45era, Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoan.

"Conversar, del latín "conversus" que significa "convertirse". Euskaraz, "solas egin", hau da, solas egiten dugun heinean beste norbait bihurtzen gara, hitzaren bidez eraldatu egiten gara. Pertsona bat ez da inoiz pertsona bera izango beste pertsona betekin hitz egin eta gero, lantalde bat aldatu egiten da lantaldea osatzen duten pertsonen solasaldien arabera."

Horretan eman dugu Foroaren gaurko tailerra.

Legazpiko Tokiko Agenda 21aren inguruan solas egin nahi izan dugu, datozen hauteskondeek ziklo bat itxi egingo dutelako eta Tokiko Ekintza-plana berrikusi beharra dagoelako.

Eta astiro egin dugu hori, behar adina denbora hartu dugu Legazpiko Agenda 21eko aurrerapen eta erronka nagusiak, ikuspegi eta ñabardura desberdinak eta urrats berriak ematen lagunduko diguten ikaspenak partekatzeko.

Saio aberatsa alde guztietatik!

Ikus dezagun jarraian, puntuz puntu.

1. Nortzuk? Parte hartu duten pertsonak

Gaur, hemen izan ditugu buru-belarri, erabat konprometituta eta gogoz...

- Montse Vallejo
- Manuel Fernandez (Nagusilan)
- M^a Cruz Lizarazu
- Xabier Baztarrika (Buskabaso)
- Rafael Gomez (Buskabaso)
- Juncal Fernandez
- Floren Gutierrez
- Pilar Makibar
- Aitor Lazkanoiturburu
- Oscar Valbuena (concejal)
- Feli Nuñez
- Juan Carlos Agirre
- Kepa Urzelai, alkatea
- Igor Urrate, zinegotzia
- Inma Hernandez, Tokiko Agenda 21eko teknikaria
- Iciar eta Zorione, Prometea¹, dinamizazio-lanetan

Javier Iraeta zinegotziak ezin etorria adierazi du.

Zuei guztioi, milesker!

Gaurko solasaldian parte hartu duzuelako eta zoragarria delako Agenda 21eko Foroaren bidea zuekin batera egitea.



2. Hasi egingo gara Legazpiko Tokiko Agenda 21eko hainbat datu partekatzen

Inma Hernandez teknikariak **Legazpiko Tokiko Agenda 21aren bilakaera adierazten duten oinarrizko datu batzuk** ezagutzera eman digu. Hona hemen labur-labur.

¹ Oharra: Inma Hernandez teknikariak esan duenaren arabera, eta egindako kontratazio-prozesuaren ondoren, Prometeako taldea izango da datozen 2 urtetan Legazpiko Agenda 21eko Foroa dinamizatzen Udalari lagunduko diona.

a. Legazpiko Tokiko Agenda 21eko Ekintza-plana: non dago une honetan? Hartutako konpromisoak betetzen al goaz?

- Planean 8 helburu estrategiko eta 159 ekintza daude jasota. Udalerriko 19 agente desberdin ari dira planaren implementazioan parte hartzen.
- 2014ko urte bukaerako datuen arabera:
 - Ekintza-planaren implementazio-maila % 63koa da.
 - Osatutako ekintzen batuketaren emaitza, bukatzen ari direnak edo oso aurreratuta daudenak, % 77 da; % 16 hasita daude; eta % 7 bakarrik daude hasi gabe.
 - 8 helburu edo lerro estrategikoetatik, aurrerapen handiena hiri-espazioen kalitatean eman da -% 80-. Aldiz, Natura ingurunean eta biodibertsitatean oso gutxi aurreratu da -% 53.

b. Adierazleak: zein da Agenda 21aren eragina Legazpiko ingurumen-kalitatean eta gizartean?

- Udalerrirako ezarritako adierazle nagusien datuak eta bilakaera ezagutu ditugu. Hauek dira:

Adierazlea	Balorazioa	
• Bidegorria		Bidegorrien sarea hobetu egin da: 6,6 km ditu dagoeneko.
• Ibilgailuak		2012tik hona irauli egin da bilakaera: auto gutxiago erosten ditugu, txikiagoak eta potentzia gutxiagokoak. Baina 4.548 auto ditugu 8.547 biztanleentzako.
• Ura		Gero eta ur gutxiago erabiltzen dugu gure etxeetan: biztanleko eta eguneko 97,2 litro; banaketa-sarean ur gutxiago galtzen da -% 16,6- antzeko beste udalerrietan baino gutxiago.
• Energia berriztagarria		Energia berriztagarri gehiago sortzen dugu, udal eraikinetan eta ikastetxeetan dauden eguzki-panelei eta biomasako galdareei esker baina oraindik gutxi da.
• Hondakinen sorrera		Hondakin gutxiago sortzen dugu: 2012an biztanleko eta eguneko 1 kg sortzen genuen eta 2014an, 0,7 kg sortu dugu.

Adierazlea	Balorazioa	
• Birziklatzea		2012an, etxeko hondakinen % 30 jasotzen genuen gaika (lagin zehatzak) eta 2014an % 83ra iritsi gara (datu errealak). Aise gainditzen dugu Gipuzkoako hondakinen planak 2016rako ezarri duen helburua.
• Parte hartzea		Agenda 21eko herritarren parte hartze foroa urtean 9-10 aldiz biltzen da, Euskadiko Autonomia Erkidegoko antzeko udalerrietan baino sarriago.
• Langabezia		Langabeziaren tasak beheranzko joera erakusten du. Gaur egun tasa hori % 10ekoa da, Gipuzkoan (% 13,3) eta EAEan (% 15,3) baino txikiagoa.
• Pobrezia		Krisialdian murgildu aurretik (2006) 19 familia ziren Diru-sarrerak bermatzeko Errenta jasotzen zutenak. 2014ko urte bukaeran kopuru hori 120ra iritsi da.
• Zahartze-tasa		Legazpiko biztanleen % 23,8, 65 urtetik gorakoa da, Euskadiko Autonomia Erkidegoko portzentajea (% 20,7) baino altuagoa. Bizi-itxaropena igotzea ona da baina pertsona helduen eta gazteen arteko portzentajeak hausnarketa egitea eskatzen du, etorkizuna prestatzeko.
• Klimaren aldaketa		2008an Udalak klima-aldaketaren aurka egiteko Ekintza-plan bat egin zuen. Helburua CO _{2e} isurketak murriztea zen, 2010-2014an 45.300 tCO _{2e} ez gainditzeko. Azkeneko ekitaldia neurtzea falta da eta gaur egungo CO ₂ -ren isurketa 42.000 dago.

C. **tak 21:** nola baloratzen da Legazpiko Agenda 21aren kalitatea?

- tak 21, Udalsarea 21ek (jasangarritasunerako udalerrien euskal sarea) Tokiko Agenda 21aren kalitatea neurtzeko garatu duen erreminta da. Neurketa hori Agenda 21eko 5 faktore baloratuz egiten da eta 2 urtean behin egiten da: lehenengoa 2012an egin zen eta azkena 2014ko amaieran.
- Euskadiko Autonomia Erkidegoko 251 udalerritatik, 200 udalerririk ari dira Tokiko Agenda 21 garatzen. 200 udalerririk horietatik 40 udalerririk bete dituzte beraien kalitatea neurtzeko tak21 erremintak ezartzen dituen baldintzak.
- **Legazpik hirugarren postua lortu du 2014ko balorazioan.**
Zorionak! Horrek esan nahi du Legazpi iraunkortasuna lortzeko bide onetik doala, oraindik eman beharreko urratsak dauden arren.



d. Ekoscan:

- Ekoscan, ingurumenean hobekuntzak lortzea helburu duen araua da. Legazpiko Udalak 10 urte daramatza ingurumen-helburuak ezarriz bai udaletxean bai obra-lantaldean. Horrela, arauan ezarritakoaren arabera, aldizka ikuskapenak gainditu behar izaten ditu.
- Azkeneko ikuskapena 2014ko bukaeran egin zen eta azpimarratu eta onartu beharreko emaitzak jaso ziren:
 - Herri-argiteria: hartutako neurriei esker, koadro elektrikoen kontsumoa % 14,16 murriztu da (2013ko urtarrila-iraila eta 2014ko urtarrila-iraila alderatuz).
 - Komunetan eskuak lehortzeko makina elektrikoak jarri dira. Horrekin, paperezko 45.000 paper-zapi aurreztu dira eta, gainera, kontsumo elektrikoak ez du gora egin.
 - Auto-konpostajea eta auzo-konpostajerako guneak: 184 familia dira auzo-konpostajea egiten dutenak. Guztira, 5.285 kilo materia organikoa erabiltzen da udalerrian etxe-konposta egiteko.

Eskainitako informazioa eta jasotako datuak solasaldi lasaia eta aberatsaren abiapuntua izan dira.

3. Hitz egiten jarraitzen dugu Legazpiko Agenda 21aren eta erronken gainean

“Entzun dugunetik izenburu bat atera beharko bagenu, zer jarriko genuke?”

Galdera hori aitzakia besterik ez da izan, **Agenda 21aren eta Legazpiko Agenda 21eko Foroaren gainean lehenengo ideiak, hausnarketak eta iruzkinak** partekatzeko.

Taldeak eskainitako izenburuak:

Oro har, eta Agenda 21eko prozesuari, ibilbideari eta balioari dagokienez:

- Agenda 21 zerbaiterako baliagarria izan da, baliagarria da.
- Lurra ez da gurea; gu gara lurrekoak.
- Orain bai dela Legazpi bizitzeko herri atsegin bat.
- Agenda 21 planifikatzeko tresna ona da.
- Bide onean gaude –nahiz eta bidea luzea izan-.
- Laneko prozesua luzea izan da. Asko egin da, eta egiten jarraitu behar dugu. Eta momentu batzuetan ez dugu hori guztia behar adina baloratzen.
- Mundu hobeago bat helburu, kontzientzia gehiago hartzen goaz.
- Pausu txiki bat aurrera.
- Asko egin da eta asko dago egiteko. Plan berria behar dugu.
- “Globoa husten ari da. Lehen asko genuen egiteko –globoa handia zen-, baina poliki-poliki globoa gero eta txikiagoa da”.



Bereziki Agenda 21eko Foroari dagokionez:

- Foro irekia da, adin guztiek dute sarbidea.
- Foro begirunetsua da.
- Konprometitua, norbera bere buruarekin eta Foroko gainerako kideekin.
- Adierazpen askatasunarekin.
- Gai asko lantzen dira zeharkakotasunetik eta sinergiak sortuz. Foroko kideek eta Udalak berak egin duten prozesuaren emaitza da.
- Proposamenak egiteko eta ikasteko aukera eskaintzen du Foroak.



- Interes partikularretik kolektiborako urratsa eman da.
- Euskararen erabilera hobera egin dugu, pertsona ororen erosotasuna zainduz.



Solasaldia lagungarria izan zaigu Legazpiko Agenda 21aren hurrengo ziklorako **erronkak eta proposamenak** identifikatzeko:



Erronkak eta proposamenak Legazpiko Agenda 21aren etorkizunerako:

1. Agenda 21eko Foroaren kanpo **komunikazioa** hobetu beharra dugu:

- Egia da Foroan parte hartzen dugunok lantzen ditugun gaietara sentsibilizatuta gaudela. Aldiz, eta aurrera goazen arren, herri mailan asko dago hobetzeko.
- Gainera, "kanpoko" jendeak ez daki Foroa zer den, nola egiten dugun lan, zein gai aztertzen ditugun, ... eta batzuk adierazi digutenez, "erreparoa ematen die bileretara joatea".
- Hori dena jakinda, zer egin dezakegu eta nola Forotik kontu hori argitzeko?

2. Modu berean, ona izango litzateke Forora pertsona gehiago **erakartzea** eta Foroa **dibertsifikatzea**:

- **Proposamena:** erroldatik lagin bat aukeratu daiteke eta haiei gonbidapenak bidali.
- **Proposamena:** hurrengo Foroan aztertuko den gaiari buruz bideo txikiak egin daitezke eta Urola Telebistan bota; horrek debatea sor dezake eta agian horrela lagun gehiago hurbilduko dira bileretara.

3. Tokiko Ekintza-plana berrikustean bertan sar daitezkeen eta Foroan landu ditzakegun **gai berriak** otu zaizkigu.

- Iraunkortasunarekin zerikusia duten gaiak dira ... eta ondo zehaztu beharko ditugu Foroak bere arreta ez galtzeko.
- **Proposatutako gai batzuk:**
 - Gutxitzea.
 - Erosketa berdea.
 - Guztien ongiaren ekonomia.
 - Natura.
 - Baratze kolektiboak ... aisialdirako aukera gisa
 - Nekazaritza ekologikoa eta auto-enplegua.
 - Hiritarren kontzientziazioa: nola landu daiteke?
 - Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta Legazpiko errealitatea: nola lagun dezakegu?



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Laburtuz: debate aberatsa sortu dugu guztion artean eta balio handiko ekarpenak egin ditugu; kontuan izango ditugu ekarpen horiek hurrengo urratsak emateko baliagarriak izango zaizkigu eta.

Eskerrik asko talde!!!

4. Urteko egutegia: tailerrak

Bukatzeko, Agenda 21eko Foroaren tailerren aurtengo egutegia aurkeztu dugu (ikusi aktari erantsitako agiria²). Esan denaren arabera, uda bitartean aztertuko diren gaiak proposatu dira; ondoren, korporazio berria martxan jarrita, urtearen bigarren seihilekoa planifikatzeko ordua iritsiko da.

5. Hurrengo hitzordua: apirilaren 23a

Eta bukatu aurretik, gonbidapen bat: apirilaren 23an, Liburuaren egunean, **Agenda 21 eta Eskola Agenda 21 elkartuko dira** urtero biek egiten duten tailerrean. Aurten gai interesgarria izango da: "Legazpi, bizitzeko herria".

Gustura jarraituko dugu solasean!
Bitartean, goza ezazue udaberriaz eta **eskerrik asko!**



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion partehartzearekin, iraunkortasunaren bidean



2015eko Egutegia - Calendario 2015

URTARRILA						
L	M	M	J	V	S	D
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

OTSAILA						
L	M	M	J	V	S	D
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	

Kale Nagusia hobetzeko proiektua.

MARTXOA						
L	M	M	J	V	S	D
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

Agenda 21ari buruz solasean: Ekintza-planaren jarraipena, adierazleak, TAK21. ikaskuntza.

APIRILA						
L	M	M	J	V	S	D
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

ESKOLA AGENDA 21. Foroa neska-mutikoekin 2014-2015 ikasturteko gaiarekin: "Bizitzeko udalerrria".

MAIATZA						
L	M	M	J	V	S	D
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

EKAINA						
L	M	M	J	V	S	D
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

Ongi etorria korporazio berriari: Agenda 21eko Foroarentzako erronka eta helburu berriak. Eta gai berri bat: uhin elektromagnetikoak.

UZTAILA						
L	M	M	J	V	S	D
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

ABUZTUA						
L	M	M	J	V	S	D
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

IRAILA						
L	M	M	J	V	S	D
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
15	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

Zehazteke, aztertze dauden gai batzuen arabera eta udal barneko lanaren arabera.

URRIA						
L	M	M	J	V	S	D
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

Zehazteke, aztertze dauden gai batzuen arabera eta udal barneko lanaren arabera.

AZAROA						
L	M	M	J	V	S	D
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

Zehazteke, aztertze dauden gai batzuen arabera eta udal barneko lanaren arabera.

ABENDUA						
L	M	M	J	V	S	D
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
15	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

Zehazteke, aztertze dauden gai batzuen arabera eta udal barneko lanaren arabera.